

Nortzu, zertzu, zeintzu hitzen deklinabidea

Oraintsuko Anaitasuna batetan BATAK/BATZU hitzaren deklinabidea aztertzen genuen. Orduko eskema osotzeko, galdegileen aipamena eginen dugu oraingoan. Hauen dekli-

KASUA

Nominatiboa	Nortzu
Ergatiboa	Nortzuk
Datiboa	Nortzuri
Genitiboa	Nortzuren
Bizidunen inesiboa	Nortzurengan
Bizidunen direktiboa	Nortzurengana

Hemen ere, deklinabideko kasu batzu ipini ditugu soilik. Hauetan finkaturik, erraz bila daitezke beste guztiak. Hona hemen zenbait adibide:

Zertzu esan dituzte lehengo mahai inguruan?

Nortzuri ez zaie gustatu han esan dena?

Zeintzurena da errua?

Baina galdegilea substantibo bati loturik doanean

nabidea mugaqabe bezala osotu behar da (ikus "Sustrai Bila", 44. horrialdeko kasua). Eta nahiz eta zilegi izan TZU atzizki pluralizatzailerik gabe erabiltzea, galdera zuzenki plural bezala egitean, egokiago ikusten dut, galdegileei TZU atzizkia eranstea.

Hara nola geratzen den galdegileon deklinabidea.

Zertzu	Zeintzu
Zertzuk	Zeintzuk
Zertzuri	Zeintzuri
Zertzuren	Zeintzuren
	Zeintzuregan
	Zeintzurengana

(aurretik, prezeski), bigarren hau deklinatzen da soilik, eta galdegilea nominatibo kasuan bezala uzten da, hots, deklinatu gabe. Adibidez:

Zertzu berezitasun dituzte zure herri inguruko bideek?

Zeintzu arazok kezkatzen zaituzte?

Zertzu jokabideri ez deritzezu ongi?